

ZTANDAP







Binakako bakarrizketak

SiNOPSiA

“Bakean Dagoena Bakean Utzi” eta “Luze edo Motz” emankizun arrakastatsuen haritik, “eztandaP” ikuskizun honetan ere Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik generoa hartuko dute umoregai eta eguneroko gaiak lehertzen saiatuko dira betaurreko moreak jantzita. Horretarako orgasmo arrakala, maitasun erromantikoa, señoarak eta elkarbizitza izango dituzte hizpide, besteak beste. Kritika eginez, deseraikiz eta barre eginez bazterrak eztanda arazteko prest daude!



FiTXA ARTiSTiKOA

- GIDOIA:
Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai
- ZUZENDARITZA:
Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai
- PARTAIDEAK:
Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai

FiTXA TEKNiKOA

- NORI ZUZENDUA: Gazteei eta helduei
- ESPAZIOA: Oholtzan zein lurrean.
Espazio minimoa 4 x 3 m.
- LEKUA: kultur etxeak, liburutegiak, plazak...
- IRAUPENA: 60 min.
- MUNTAIA:
emanaldia hasi baino 30 min lehenago iritsiko da.
- DESMUNTAIA: 30 min
- AURREKONTUA:
1.378€ + BEZ (%21) soinu-ekipoa gabe.
1.700€ + BEZ (%21) soinu-ekipoa barne.
Aurrekontu bereziak herri mugimenduentzat.

MIRARI MARTIARENA IRAOLA

(Oiartzun, 1986)

Umoregile, gidoigile eta kazetaria da. *Bakean dagoena*, *bakean utzi* ikuskizuna 150etik gora herritan zabaldu du Idoia Torregararekin batera. Martiarena *Bakean dagoena*, *bakean utzi ikuskizuna* idatzi, prestatu eta 2018an eskaintzen hasi zen hainbat herritan Idoia Torregararekin batera, LANKU ekoizpen-etxearekin. Ikuskizunean emakume baten eguneroko bizitzan gertatzen direnak islatzen dituzte ikuspuntu umoretsu batetik. Euskarazko umoregintzan eta generoko gaiak lantzen aitzindariak izan dira. *Luze edo Motz* umorezko ikuskizun berri bat sortu zuen 2020an Idoia Torregararekin. Feminismoa eta euskara dira haien lanaren ardatzak.

IDOIA TORREGARAI MARTIJA

(Usurbil, 1974)

Kazetaria, UEUko komunikazio-arduraduna eta umorista da. 1997an Euskal Herriko Unibertsitatean kazetaritza-ikasketak bukatuta, komunikazio-zuzendaritza ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitate autonomoan eta gidoigintza Kataluniako unibertsitate Irekian. Torregarai *Barretartia* blog pertsonalean, eta Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan eman zituen bere lehenengo urratsak umorearen munduan. *Bakean dagoena*, *bakean utzi* ikuskizuna idatzi, prestatu eta 2018an eskaintzen hasi zen hainbat herritan Mirari Martiarena-rekin batera. Antzezlanean emakume baten eguneroko bizitzan gertatzen direnak islatzen dituzte ikuspuntu umoretsu batetik. Euskarazko umoregintzan eta generoko gaiak lantzen aitzindariak izan dira.





KONTAKTUA

Marta Agirrezabala Zubillaga

Marketina eta Komunikazioa

marketina@lanku.eus

675716472 - 943 26 07 55

www.lanku.eus